



Bisita Ekainberriko kobetara, Gipuzkoaren bihotzean

Goi-mailako prestakuntza duten 12 profesional ez osaturiko talde batek hartu zuen parte Gipuzkoa Talentek urtean antolaturiko bigarren jardura soziokulturalean

2019ko apirila. Udaberria heltzeaz batera, Gipuzkoa Talentek bisita gidatua antolatu zuen, joan den apirilaren 6an, Ekainberriko gunera, Zestoan, *Relocation and Be Basque Dual Career Centre* zerbitzuaren baitan, zeinaren xede nagusia den pertsonen arteko harremanak eta harreman profesionalak sustatzea, profesionalak hobeto jendartera daitezen.

Ekainberriko koba Ekainen erreplika da, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatua. Historiaurrekoa bera, animaliak erakusten dituzten margo eta muralak daude bertan, balio arkeologiko aparteak.

Jardura soziokulturalean, goi-mailako prestakuntza duten 12 profesional bildu ziren, eta Paleolitoko bizimoduaren sekretuak ezagutu zituzten. Kobetan barrena, duela 15.000 urte gizakia bertan nola bizi zen ikusi zuten, eta Historiaurrean bezala sua egiten, ehizatzen eta margotzen ikasi. Ekainberri bisitatu ostean, jatorrizko kobaren sarrerara gerturatu ziren, ibilbideari amaiera emateko.

Zestoan izan ziren profesionalak Mexiko, Estatu Batuak, India eta Venezuelakoak dira, hala nola Estatuaren gainerakokoak, eta Euskadira itzultitakoak ere izan ziren tartean. Denek garatzen dute



beren lan-jarduera erakunde hauetako batean: Ikor, Basque Center On Cognition, Brain and Language (BCBL), Tecnalia eta Donostia International Physics Center (DIPC).